Honen bidez jakinarazi nahi da dokumentu hau Azpeitiko Hirigintza Antolamenduaren Plangintza Orokorreko TRUKUTXO 31 Hirigintza Eremurako Urbanizazio Proiektuari dagokiola.
Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartu du Alkatetzak 2025/09/02an emandako Ebazpenaren bidez. Idazkaria.
Honako dokumentu hau **Azpeitiko "UE.1/31 Trukutxo" Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektuaren parte dela egiaztatzeko**, proiektu hori **Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko abenduaren 2an egindako bilkuran behin betiko onartu zuen.**

# A U R K I B I D E A

**1. AURREKARIAK ETA PROIEKTUAREN XEDEA ....................1**

1.1. AURREKARI ADMINISTRATIBOAK....................1

1.2. AURREKARI TEKNIKOAK....................1

1.2.1. EZAUGARRI FISIKOAK ETA TOPOGRAFIKOAK....................4

1.2.2. ERABILERAK, ERAIKINAK ETA AZPIEGITURAK....................5

1.3. PROIEKTUAREN XEDEA....................5

**2. HASIERAKO DATUAK....................6**

**3. TALDE IDAZLARIA....................7**

**4. AUKERATUTAKO SOLUZIOAREN DESKRIBAPENAA....................8**

4.1. EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA ETA URBANIZAZIO-PROIEKTUAREN EREMUA....................8

4.2. AUKERATUTAKO SOLUZIOAREN DESKRIBAPENA// PLANTEATUTAKO URBANIZAZIO-OBRAK....................11

4.2.1 ESPAZIO LIBREEN INGUGUMEN-HOBEKUNTZA....................11

4.2.2 ZERBITZU-AZPIEGITURAK....................12

4.2.3 INGURUMEN-ADIERAZPEN BATERATUAREN EBAZPENEAN ESKATUTAKO NEURRI BABESLE, ZUZENTZAILE, KONPENTSATZAILE ETA JARRAIPENEKOAK EZARTZEA....................17

4.3. AURREIKUSITAKO JARDUKETEN DESKRIBAPENA....................22

4.4. UDAL-PARTZELAN ETXOLA ERAISTEA....................22

4.5. ESPAZIO LIBREEN AKABERA IRAGAZKORREN EHUNEKOA....................22

**5. EGIKARITZE-EPEA....................24**

**6. HERRI ADMINISTRAZIOEN KONTRATUEN LEGEAREN ERREGELAMENDU OROKORRA ONARTZEN DUEN 1098/2001 DEKRETUA BETETZEA....................25**

**7. KONTRATISTEN SAILKAPENA....................26**

**8. PROIEKTUA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK....................27**

**9. OBREN AURREKONTUA....................30**

Honen bidez jakinarazi nahi da dokumentu hau Azpeitiko Hirigintza Antolamenduaren Plangintza Orokorreko TRUKUTXO 31 Hirigintza Eremurako Urbanizazio Proiektuari dagokiola.
Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartu du Alkatetzak 2025/09/02an emandako Ebazpenaren bidez. Idazkaria.
Honako dokumentu hau **Azpeitiko "UE.1/31 Trukutxo" Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektuaren parte dela egiaztatzeko,** proiektu hori **Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko abenduaren 2an egindako bilkuran behin betiko onartu zuen.**

# 1. AURREKARIAK ETA PROIEKTUAREN XEDEA

## 1.1. AURREKARI ADMINISTRATIBOAK

2013an onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (HAPO) “31 Trukutxo” eremua identifikatzen du, eta bertan zehazten ditu egiturazko antolamenduaren baldintzak. Horrela, eremu hori lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa sailkatzen du, eta oro har, nagusiki, lurzoru industrial gisa kalifikatzen du, Amue eremuko lurzoruaren eraldaketa, industria-lur izatetik bizitegi-lur izatera pasatuz, konpentsatzeko. Aurrekoa garatzeko, 2024an, eremuaren antolamendu xehatua finkatzen duen Plan Partziala izapidetu zen eta, aldi berean, “JIE. 1/31” Jarduketa Integratuko Eremua Urbanizatzeko Jarduketa Programa, berezkoak dituen hirigintza egikaritzeko aurreikuspenak zehaztea xede duena. HJP horren barruan Urbanizazio Aurreproiektua sartu da, egikaritze-unitatean egin beharreko urbanizazio-obrak definitzen dituena aurreproiektu baten berezko zehaztasun-mailarekin. Dokumentu horiek Santiago Peñalbaren arkitektura-estudioak garatu ditu.

Azkenik, *“Azpeitiko (Gipuzkoa) Trukutxo 31. HEren Urbanizazio Proiektu”* hau idatzi da. Bertan, xehetasunez garatu dira eremua urbanizatzeko beharrezkoak diren obrak, lehen aipatutako planetara eta Euskal Autonomia Erkidegoko Industria, Transakzio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak 2025eko otsailean emandako “*Azpeitiko Trukutxo 31. Hirigintza Eremuaren Plan Partzialaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoaren*” ebazpenean jasotako neurrietara egokituta.

**Hierros Sevando S.L.** merkataritza-sozietateak, “JIE.1/31” (Trukutxo) eremuan dauden lursail gehienen jabeak, INEK Ingeniería y Consultoría kontratatu du dokumentu hau garatzeko.

## 1.2. AURREKARI TEKNIKOAK

Trukutxo 31, HE eremua Lasao inguruan dago, udalerriaren iparraldean, Urola ibaiaren bi ertzetan, Anardin eta Badiolegin industria-jarduerek okupatzen duten lurzoruaren hiri-continuumean. Aurreko paragrafoan aipatu den bezala, eremuko lur gehienak Hierros Servando, S.L.-renak dira. Gainerakoak, titulartasun publikokoak dira eta bat datoz eremu barruan dauden ibai-ibilguen tarteekin (jabari publiko hidraulikoa), GI-631 foru-errepidearekin eta tokiko bideekin (bide-jabari publikoa), eta trenbidearekin (trenbidearen jabari publikoa). Nabarmentzekoa da material ferrikoak birziklatzeko instalazio bat dagoela erdiko plataforman. Eremuko kotarik garaiena iparraldeko hegalean dago (150 m inguruan), eta baxuena, berriz, 75 m inguruan, hegoaldean.

Eremu horretan ez dago ez naturagune babesturik, ez korridore ekologikorik, ez interes geologikoko lekurik. Urola ibaiaren bi ertzetan dago eta, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen arabera, azpiegitura berdetzat jotzen da; izan ere, meandro itxurako ibilbidea du, eta Badiolegiko meandroa nabarmentzen da. Eremuan Ugalditza erreka identifikatu da. Lurpeko urei dagokienez, akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasuna oso txikia da, eta Urola ibaiaren ezkerraldeko mendebaldeko muturra interes hidrogeologikokotzat jotzen den eta Kuaternarioko alubioi-materialez osatua dagoen eremu baten zatian dago.




**1. irudia**. Azpeitiko udalerria airetik ikusita eta proiektuaren eremuaren kokapena.

Honen bidez jakinarazi nahi da dokumentu hau Azpeitiko Hirigintza Antolamenduaren Plangintza Orokorreko TRUKUTXO 31 Hirigintza Eremurako Urbanizazio Proiektuari dagokiola.
Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartu du Alkatetzak 2025/09/02an emandako Ebazpenaren bidez. Idazkaria.
Honako dokumentu hau **Azpeitiko "UE.1/31 Trukutxo" Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektuaren parte dela egiaztatzeko,** proiektu hori **Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko abenduaren 2an egindako bilkuran behin betiko onartu zuen.**




**2. irudia.** Eremuaren mugaren xehetasuna.

Eremuaren egungo egoera duela 10 urte baino gehiago ibaiaren ezkerraldean hainbat obra egitearen ondoriozkoa da: obra publikoak, eraikinak eta urbanizazioa. Horietako batzuetan INEK Ingeniaritzak parte hartu zuen, urbanizazio- eta egitura-proiektuak koordinatuz eta egikarituz eta obrak zuzenduz. Besteak beste, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Badiolegiko Zabalguneak urbanizatzeko proiektua (2007-2011), Azpeitian.
- Danona industrialdeko Urola ibaiaren gaineko zubiaren proiektua eta obra-zuzendaritza (2009), Azpeitian.
- Trenbide-tunel faltsuaren eta bermakuntza-hormen proiektua eta obra-zuzendaritza (2008), Azpeitian.
- Altzairugintzaren eta pabiloi osagarrien proiektua Azpeitiko Trukutxo industrialdean (2009-2010).

Honen bidez jakinarazi nahi da dokumentu hau Azpeitiko Hirigintza Antolamenduaren Plangintza Orokorreko TRUKUTXO 31 Hirigintza Eremurako Urbanizazio Proiektuari dagokiola. Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartu du Alkatetzak 2025/09/02an emandako Ebazpenaren bidez. Idazkaria.
Honako dokumentu hau **Azpeitiko "UE.1/31 Trukutxo" Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektuaren parte dela egiaztatzeko,** proiektu hori **Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko abenduaren 2an egindako bilkuran behin betiko onartu zuen.**



**Urbanizazio Proiektua** egiteko, hura idazteko interesgarria izan daitekeen **informazio eskuragarri guztia bildu da**, bereziki 2025eko martxoan onartutako Plan Partziala eta Urbanizatzeko Jarduketa Programa, Santiago Peñalba arkitektoaren eskutik. Azken horren barruan dago *"Azpeitiko "Trukutxo 31. HE" eremuaren Urbanizazio Aurreproiektua"*, dokumentu honen abiapuntu gisa erabili dena. Halaber, kontuan hartu dira "*Azpeitiko Trukutxo 31. Hirigintza Eremuaren Plan Partzialaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa*" dokumentuaren premisak, aurrerago garatuko direnak.

### 1.2.1. EZAUGARRI FISIKOAK ETA TOPOGRAFIKOAK

Gipuzkoako Mugikortasuna, Turismoa eta Lurralde Antolaketako Departamentuko funtsetatik jasotako kartografia erabiltzen da. Azpeitiko udalerriko "MS-III-c" orria erabili da, 1/5000 eskala eta ETRS-89 U.T.M 30 erreferentzia-sistema espaziala dituena.

Trukutxo inguruko erabilerak industrialak dira, eta bertan daude Anardi eta Badiolegi industrialdeak. Inguruko gainerako lurretakoak lehen sektoreko erabilerak dira. Eremuaren azalera osoa 259.790 $m^2$ ingurukoa da, eta Urola ibaiak zatitzen du.



**2. irudia**. Egungo egoeraren ikuspegia.

ESKU0d82637-0520-4904-8652-0a8533949351b

### 1.2.2. ERABILERAK, ERAIKINAK ETA AZPIEGITURAK

Udalerriko hiri- eta bide-bilbean integratutako eremua da. Horregatik, behar diren zerbitzu-azpiegitura guztiak ditu. Erabilera nagusia industriala da, Hierros Servando SL-ren instalazioekin. Bideek eta biribilguneek, ibaia inguratzen duen bidegorriak, trenbide-sareak, espazio libre komun eta hiritarrek eta ibai-ibilguek ere osatzen dute.

## 1.3. PROIEKTUAREN XEDEA

**Urbanizazio Proiektu** honen xedea da, eraikuntza-proiektu bat zehaztuz, definizio formal eta funtzionala eta EUren eremua eta haren ”1/31. Trukutxo” ingurunea urbanizatzeko beharrezkoak diren obren balorazioa egitea eta lehendik dauden sare eta instalazioekin lotzea, *“Azpeitiko Trukutxo 31. Hirigintza Eremuaren Plan Partzialaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa”* dokumentuan eskatutako baldintzetara egokituz.

Kanpoko urbanizazioko edo urbanizazio publikoko zerbitzu-sareez hornitzeko beharrezkoak diren obrak eta aurreikusitako ingurumen-hobekuntzarako lan eta landaketak zehazten ditu proiektuak.

Honen bidez jakinarazi nahi da dokumentu hau Azpeitiko Hirigintza Antolamenduaren Plangintza Orokorreko TRUKUTXO 31 Hirigintza Eremurako Urbanizazio Proiektuari dagokiola. Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartu du Alkatetzak 2025/09/02an emandako Ebazpenaren bidez. Idazkaria.
Honako dokumentu hau **Azpeitiko "UE.1/31 Trukutxo" Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektuaren parte dela egiaztatzeko,** proiektu hori T**okiko Gobernu Batzarrak 2025eko abenduaren 2an egindako bilkuran behin betiko onartu zuen.**

# 2. HASIERAKO DATUAK

Honako hauek dira abiapuntu nagusiak:

- "Trukutxo 31. HE"-ren Plan Partziala, Santiago Peñalbak idatzia (2024).
- Azpeitiko "Trukutxo 31. HE"-ren Hirigintzako Jarduketa Programa (2024).
- Azpeitiko "Trukutxo 31. HE" eremuaren Urbanizazio Aurreproiektua (2024).
- Planoen zerrenda: "Hierros Servandoren industria-ezarpena Azpeitiko Trukutxoko lurretan (2024), 2007 eta 2011 urteen artean egindako proiektu eta obretan oinarrituta.

Honen bidez jakinarazi nahi da dokumentu hau Azpeitiko Hirigintza Antolamenduaren Plangintza Orokorreko TRUKUTXO 31 Hirigintza Eremurako Urbanizazio Proiektuari dagokiola.
Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartu du Alkatetzak 2025/09/02an emandako Ebazpenaren bidez. Idazkaria.
Honako dokumentu hau **Azpeitiko "UE.1/31 Trukutxo" Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektuaren parte dela egiaztatzeko,** proiektu hori **Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko abenduaren 2an egindako bilkuran behin betiko onartu zuen.**

# 3. TALDE IDAZLARIA

Proiektua egileak idatzi du, Ramón V. Román Alonso Bide, Ubide eta Portuetako ingeniariak, INEK Ingeniería y Consultoría S.L.U. enpresako bitartekoekin eta haren langileen laguntzarekin. Hona hemen enpresaren helbidea eta telefonoa:

**INEK Ingeniería y Consultoría S.L.U.**

Escuela Artes y Oficios kalea, 6 behea
48901 Barakaldoko (Bizkaia)
Tel: 944 180 366
e-posta: inek@inek.es

**Santiago Peñalba Garmendia** jaunak ere lagundu du, hau da, proiektu honen sorburu izan diren hirigintza-dokumentuak idatzi dituen arkitekto hirigileak.

Honen bidez jakinarazi nahi da dokumentu hau Azpeitiko Hirigintza Antolamenduaren Plangintza Orokorreko TRUKUTXO 31 Hirigintza Eremurako Urbanizazio Proiektuari dagokiola. Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartu du Alkatetzak 2025/09/02an emandako Ebazpenaren bidez. Idazkaria.
Honako dokumentu hau **Azpeitiko "UE.1/31 Trukutxo" Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektuaren parte dela egiaztatzeko**, proiektu hori **Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko abenduaren 2an egindako bilkuran behin betiko onartu zuen.**

# 4. AUKERATUTAKO SOLUZIOAREN DESKRIBAPENAA

Jarraian, obren kokapena, egungo egoera eta proiektatutako eraikuntza-soluzioa deskribatuko dira.

## 4.1. EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA ETA URBANIZAZIO-PROIEKTUAREN EREMUA

“Trukutxo 31. HE” eremuaren Plan Partzialean eta HJPan zehaztuta geratu zen eremuaren antolamendua. Azalera osoa 259.786 m$^2$ da. Hori guztia urte batzuk lehenago egindako eta gaur egun erabat finkatutako urbanizazio-, eraikuntza- eta hidraulika-obrak egikaritzearen ondorioa da.
Eremuak ondo bereizitako bi zona ditu. Erdigunea, birziklatze-parkearen industria-jarduera garatzen duen plataformarekin. Hainbat egitura, barruko bideak eta industria-pabiloi nagusia daude bertan. Eta ibaiaren bi ertzetako eta Ugalditza errekastoaren ezkerreko ertzeko berdeguneak.

Proiektu honen eremuan ez dira sartzen Sistema Orokorrak eta jabari publiko hidraulikoa, finkatuta daudenak. Bereziki, bide-sarea (GI-631 errepidea) eraldatzea, eremura eta Anardira sartzeko biribilgune bat egikarituz, trenbide-estalkia berregokitzea eta Urolaren ezkerreko ertzean horma bat antolatzea. Bai eta ibaiaren bi ertzak lotzen dituen zubi bat ere, ezkerreko ertzaren beheko plataformatik eskuineko ertzean harri-lubaki gainean egikaritutako plataformaraino. Harri-lubetaren oinean igarotzen dira eskuinaldeko ibilgailu, bizikleta eta oinezkoentzako bideak.

Dagoeneko egikarituta dauden tokiko urbanizazio-obrak ere ez dira sartuko. Bereziki, GI-631 errepideko sarbideak, aire zabaleko ibilgailuen aparkalekuaren berrantolaketa eta zerbitzu-azpiegiturekiko loturak.

Horregatik, urbanizazio-proiektu honek “f.10.1”, “f.10.2” y “f.10.3” izeneko lursail eta espazio publikoetan eragiten du.

Jarraian deskribatuko da eremuaren zonakatze xehatua.

**Partzela industrialak**

“b.10.1 partzela”: 158.736 m$^2$-ko azalera du, Urola ibaiaren bi ertzetan garatzen da eta jarraitutasuna du, bi ertzak lotzen dituen zubiari esker. Ezkerraldean bi plataforma daude, +87 m-ko eta +71 m-ko kotekin, eta metalezko hondakin ferrikoak kudeatzeko instalazio bat

dago finkatuta. Ibaiaren eskuinaldean beste plataforma bat dago +75 metrora. Lehen aipatutako zubitik iristen da bertara, mendi-mazela baten ondoan. Partzela osoa Hierros Servando SL-rena da, industria-jarduera garatzen duenarena.

"b.10.2" partzela: 28.138 m$^2$-koa eta Azpeitiko udalarena. Anardi industrialdearen ondoan dago, eta GI-631 errepidetik, Urolako oinezkoentzako eta bizikletentzako bidetik eta trenbide-saretik du partzeletarako sarbidea.

Hala, bi partzelek irisgarritasun-baldintza oso onak dituzte Lasao auzotik.

**Bideen, trenbideen eta ibai-ibilguen sistema orokorrak**

"e.10.1" errepidea: GI-631 errepidea, biribilgunearekin eta 13.129 m$^2$-ko azalerarekin, eta sistema orokorrekoa.

"e.10.2.1" bidea: Oinezkoentzako bidea Urola ibaiaren eskuinaldetik HUAraino. Azalera: 1.751 m$^2$ eta 3,5 m-ko zabalera.

"e.10.2.2" bidea: Bidea Hierros Servando SL-ren + 87m-ko kotako plataformarako sarbidean, 1.155 m$^2$.ko azalerarekin eta 7,5 m-inguruko zabalerarekin.

"e.10.2.3" bidea: Bidea Hierros Servando SL-ren +71m-ko kotako plataformarako sarbidean, 531 m$^2$-ko azalerarekin eta 7,5 m-inguruko zabalerarekin.

**Hiri-espazio libreak**

Erabilera horretarako hiru azpieremu mugatu dira ibaiaren bi ertzetan, Anardin dagoen industriagunetik ibai-ertzean paseoak egitea edo Badiolegiko eremutik datorren oinezko- eta bizikleta-ibilbidea hartzea errazten duten kokapenetan. Hiru azpieremuak bat datoz honako hauekin:

"f.10.1": Urolaren eskuinaldeko hegala, lehendik dagoen eta Ugalditza errekaraino hedatzen den bidearen ondoan. Azalera: 20.225 m$^2$.

"f.10.2": Urola ibaiaren eskuinaldea. Azalera: 11.585 m$^2$.

"f.10.3": Ugalditza errekaren ezkerraldea. Azalera: 2.450 m$^2$.

**Ibilbide berezien sarea. Oinezkoak-bizikletak**

"e.20.1": Eskuinaldeko bidegorria eta Urola ibaiaren gaineko pasabidea (antzinako harrizko zubia). Azalera: 1.460 m$^2$. Sistema Orokorrekoa.

## Ibai-ibilguak

<u>"h.10.1"</u>: Urola ibaia, Sistema Orokorrekoa eta 20.080 m$^2$-ko azalerarekin.

<u>"h.10.2"</u>: Ugalditza erreka, Sistema Orokorrekoa eta 740 m$^2$-ko azalerarekin.



**3. irudia**: Eremuaren zonakatze xehatua.

Honen bidez jakinarazi nahi da dokumentu hau Azpeitiko Hirigintza Antolamenduaren Plangintza Orokorreko TRUKUTXO 31 Hirigintza Eremurako Urbanizazio Proiektuari dagokiola.
Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartu du Alkatetzak 2025/09/02an emandako Ebazpenaren bidez. Idazkaria.
Honako dokumentu hau **Azpeitiko "UE.1/31 Trukutxo" Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektuaren parte dela egiaztatzeko,** proiektu hori **Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko abenduaren 2an egindako bilkuran behin betiko onartu zuen.**



## 4.2. AUKERATUTAKO SOLUZIOAREN DESKRIBAPENA// PLANTEATUTAKO URBANIZAZIO-OBRAK

### 4.2.1 ESPAZIO LIBREEN INGUGUMEN-HOBEKUNTZA

Ingurumena hobetzeko jarduera nagusia tamaina txikiko hainbat espezierekin egingo den **baso-landaketa bat** izango da. Aleen antolamendua Planoak-2. dokumentuko 6. planoan (Ingurumen Hobekuntza) daude adierazita. Horien helburua hiri-integrazioa eta eremuaren ingurumen-birkalifikazioa ahalbidetzea da. Hobetu beharreko espazio libreak “f.10.1”y “f.10.3” izenekoak dira. Jarraian, horietako bakoitzean egin beharreko lanak deskribatuko dira:

**Ingurumen-hobekuntzak f.10.1-ean**

Urolaren eskuinaldeko hegala, lehendik dagoen eta Ugalditza errekaraino hedatzen den bidearen ondoan. 20.225 $m^2$-ko azalera du eta bertako landaretza ugari eta askotarikoaz estalita dago. Horien artean, pinu arrunta nabarmentzen da. Zona horretako ingurumena hobetzeko, dauden zuhaitz batzuen entresaka eta inausketa selektiboa egingo da. Lan hauek egingo dira: zuloak induskatu, landare txikiak landatu, landare-lurra jarri, 1,5 m-ko zurkaitza jarri bertikaltasuna errazteko, eta hodia edo sarea jarri animaliek kalte egin ez diezaieten. Inausketa selektiboa tokian bertan erabakiko du zuzendaritza fakultatiboak, lanak egiten dituen enpresa espezializatuarekin batera. 4. dokumentuan adierazten den bezala: Aurrekontua. 2. kapitulua: Ingurumenaren hobekuntza. Landareen prezioak oso txikiak dira, oso tamaina txikia dutelako (kasik hesolak). Baina, bestalde, handitu egiten dira, ia lan guztiak eskuz egingo direla uste delako; izan ere, mendi-hegalaren maldak ez du makinarik sartzen uzten, baldin eta pistak prestatzen ez badira eta horrek eragin kaltegarria izan dezake ingurumen-inpaktuan.

Espezie berriak landatzeari dagokionez, zuhaitz- eta zuhaixka-ale hauek jarriko dira:

- Ulmus minor-Zumarra. Batez besteko garaiera 30-40 m: 7 unitate.
- Castanea sativa-Gaztainondoa. Batez besteko garaiera 25-30 m: 7 unitate.
- Quercus Robur-Haritza. Batez besteko garaiera 25-30 m: 6 unitate.
- Betula Pendula-Urkia Batez besteko garaiera 15-25 m: 9 unitate
- Fraxinus excelsior-Lizarra. Batez besteko garaiera 15-20 m: 5 unitate
- Acer Campestre-Astigarra. Batez besteko garaiera 10-12 m: 24 unitate.
- Salix Atrocinera-Sahatsa. Batez besteko garaiera: 10-15 m: 5 unitate.
- Tilia Plathyphyllos-Ezkia. Batez besteko garaiera 30 m: 4 unitate.

Honen bidez jakinarazi nahi da dokumentu hau Azpeitiko Hirigintza Antolamenduaren Plangintza Orokorreko TRUKUTXO 31 Hirigintza Eremurako Urbanizazio Proiektuari dagokiola.
Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartu du Alkatetzak 2025/09/02an emandako Ebazpenaren bidez. Idazkaria.
Honako dokumentu hau **Azpeitiko "UE.1/31 Trukutxo" Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektuaren parte dela egiaztatzeko,** proiektu hori **Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko abenduaren 2an egindako bilkuran behin betiko onartu zuen.**

- Alnus glutinosa-Haltza. Batez besteko garaiera: 20-30 m: 8 unitate.
- Euonymus Eurapeus-Basaerramua. Batez besteko garaiera 3-6 m: 3 unitate.
- Corylus Avellana-Hurritza. Batez besteko garaiera: 3-8 m: 10 unitate.

Espezieak banatu egingo dira, eta sahatsak, haltzak, lizarrak eta hurritzak Ugalditza errekaren ertzetatik gertu jarriko dira.

**Ingurumen-hobekuntzak f.10.3-ean**

Azalera txikiagoko lursaila, Ugalditzako errekaren ezkerraldean. Azalera 2.450 m2-koa da. Honako zuhaitz- eta zuhaixka-mota hauek landatzea aurreikusten da:

- Salix Atrocinera-Sahatsa. Batez besteko garaiera: 10-15 m: 3 unitate.
- Tilia Plathyphyllos-Ezkia. Batez besteko garaiera 30 m: Unitate bat.
- Alnus glutinosa-Haltza. Batez besteko garaiera: 20-30 m: 9 unitate.
- Euonymus Eurapeus-Basaerramua. Batez besteko garaiera 3-6 m: 3 unitate.
- Corylus Avellana-Hurritza. Batez besteko garaiera: 3-8 m: 11 unitate.

“f.10.2” eremua ere hiri-espazio libreen zati bada ere, ez da hobekuntzarik egingo, Urola ibaiertzeko berezko hazkundearen berezko landaredi autoktonoz beteta baitago.

### 4.2.2 ZERBITZU-AZPIEGITURAK

Udalerriaren hiri-bilbean integratutako eremua denez, behar diren zerbitzu-azpiegitura guztiak ditu, ezarri beharreko industria-jardueren funtzionamendua bermatuko dutenak. Halaber, barne-urbanizazioko zerbitzu-sareak (“b.10.1” partzela) erabat konponduta daude, eta dagozkien Egikaritze Proiektuetan egin dira.

**Hornidura Sarea**

Lehendik dagoen hornidura-sarea hainbat hodik osatzen dute. Hodi horiek, batez ere, b.10.1 partzelaren barruko urbanizazioa hornitzen dute (txatarrra-parkea, minizentrala, aldagelak...), guztiak burdinurtu nodularrekoak dira eta 100 eta 200 mm arteko diametrokoak. Bi hartune bereizi daude: bata suteen aurkako sarerako eta bestea hornidura-sarerako.

Eremua zeharkatzen duen hodi handiago bat ere badago (FD DN 700 mm), ibaia iparraldetik hegoaldera inguratzen duena eta b.10.2 partzela zeharkatzen duena.

ESKU08d82637-0520-4961-8950-0a8533493b1b

Honen bidez jakinarazi nahi da dokumentu hau Azpeitiko Hirigintza Antolamenduaren Plangintza Orokorreko TRUKUTXO 31 Hirigintza Eremurako Urbanizazio Proiektuari dagokiola.
Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartu du Alkatetzak 2025/09/02an emandako Ebazpenaren bidez. Idazkaria.
Honako dokumentu hau **Azpeitiko "UE.1/31 Trukutxo" Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektuaren parte dela egiaztatzeko,** proiektu hori **Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko abenduaren 2an egindako bilkuran behin betiko onartu zuen.**

Proiektatutako sare berri gisa, udalaren b.10.2 partzelarako hartune bikoitza aurreikusten da, PEAD DN 63 mm-ko eta PEAD DN 90 mm-ko hodiekin (kontsumoa gehi suteak), partzela horretatik gertu dagoen sare-tarte batetik abiatzen direnak. Eremu horretan dauden sareetako informazioa INKOLANetik lortu da, GIPUZKOAKO URAK partzuergoari kontsultak egin ondoren. Lehendik dauden hornidura-sare horiek eta saneamendu-sareak proiektu-planoetan irudikatuta daude.



**4. irudia**: Hornidura-sarea.

**Saneamendu- eta drainatze-sareak**

Eremu publikoan eta b.10.1 lurzatian dagoen urbanizazioari dagokionez, gaur egun **+87 kotako plataformaren drainatze-sare bat dago (b.10.1 partzela)**. Sare horrek, gainera, GI-631 errepideko biribilgunearen drainatzea jasotzen du, Istingeko biribilgunerantz jaisten da eta poligonorako sarbidearen, biribilgunearen eta Hierros Servandoren aparkalekuaren drainatzea jasotzen du, Urola ibaira isurtzeko, Danonako bulegoen aurrean Urola ibaiaren gainean dagoen zubitik oso gertu. Plataforma horretan bildutako ura, isuri aurretik, **hidrokarburoen dekantagailu-bereizgailu batetik** igarotzen da, material ferrikoen prozesu-eremuan garbitu daitezkeen partikulak atxikitzeko. Dekantagailu horretarako sarrera ponpaketa-putzu batean dago. Putzu horrek gainezkabide bat edo bypass bat du ezohiko prezipitazioak desbideratzeko. Instalazio horiek 15 urte baino gehiago daramatzate funtzionamenduan.

Honen bidez jakinarazi nahi da dokumentu hau Azpeitiko Hirigintza Antolamenduaren Plangintza Orokorreko TRUKUTXO 31 Hirigintza Eremurako Urbanizazio Proiektuari dagokiola.
Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartu du Alkatetzak 2025/09/02an emandako Ebazpenaren bidez. Idazkaria.
Honako dokumentu hau **Azpeitiko "UE.1/31 Trukutxo" Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektuaren parte dela egiaztatzeko**, proiektu hori **Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko abenduaren 2an egindako bilkuran behin betiko onartu zuen.**

**+71 kotako plataformaren drainatze-sareak (b.10.1 partzela)** bi kolektore-sare ditu, bide-hustubideak eta plataforma biltzen dituen sare bat eta pabiloietako estalkien zorrotenak biltzen dituen beste sare bat. **Euri-uren kolektore-sareak** plataformako hustubideak biltzen ditu, eta **dekantagailu-bereizgailu batera joaten da** Urola ibaira isuri aurretik. **Pabiloien estalkietako euri-uren kolektoreen sareak** pabiloietako estalkien zorrotenetako urak bildu eta zuzenean Urola ibaira isurtzen ditu. Bi kolektoreen **isurketa-puntuak** atxikita daude, eta Trukutxoko minizentraleko irteera-obran kokatuta.

**Ur beltzen sare** bat ere jarri da +71 kotako plataforman b.10.1 partzelaren barruan. **Grabitateko kolektoreak** ditu. Kolektore horiek Transformazio Zentroko eraikineko aldageletako, baskularen etxolako bainugelako (+87 kotan) eta +71 kotako sarbideko eraikineko hondakin-ura jasotzen dute. Kolektore guztiak **ponpaketa-putzu** batera iristen dira. Putzu horrek, Danona ibaiaren gaineko zubitik igaro, mendebalderantz biratu eta hurrengo HUAranzko beste ponpaketa-putzu bat dela uste dugun udal-kolektoreko kutxatila batera iristen den bulkada-kolektore baten bidez eramaten ditu ur beltzak.

Proiektu honen xede den kanpoko urbanizazioari dagokionez, **“b.10.2” hargune berri bat proiektatuko da** ur beltzen sarerako, kolektore nagusiarekin konektatuko dena 250 mm-ko PVC hodi baten bidez. Eremu horretan dauden sareetako informazioa INKOLANetik lortu da, GIPUZKOAKO URAK partzuergoari kontsultak egin ondoren. Lehendik dauden hornidura-sare horiek eta saneamendu-sareak proiektu-planoetan irudikatuta daude.

**Energia elektrikoaren sarea eta argiteria publikoaren sarea**

Egungo sarea behe-tentsioko eta erdi-tentsioko lurpeko kanalizazioek eta goi-tentsioko aireko lineek osatzen dute eta transformazio-zentroaren eraikinetik ere igarotzen da.

Argiteria publikoa, gainerako zerbitzu-sareak bezala, egikarituta dago. Sarea Anardi industrialdean hasten da, eta ibaiaren paraleloan doan bide osoan zehar igarotzen da, 5 metroko zutabeek eta LED argiek osatutako argi-puntuekin.

Honen bidez jakinarazi nahi da dokumentu hau Azpeitiko Hirigintza Antolamenduaren Plangintza Orokorreko TRUKUTXO 31 Hirigintza Eremurako Urbanizazio Proiektuari dagokiola. Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartu du Alkatetzak 2025/09/02an emandako Ebazpenaren bidez. Idazkaria.
Honako dokumentu hau **Azpeitiko "UE.1/31 Trukutxo" Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektuaren parte dela egiaztatzeko,** proiektu hori T**okiko Gobernu Batzarrak 2025eko abenduaren 2an egindako bilkuran behin betiko onartu zuen.**





**5. irudia**: Saneamendu-sarea.



**6. irudia**: Energia elektrikoaren sarea eta argiteria publikoaren sarea.

### Telekomunikazio Sarea eta Gas Sarea

Lehendik dagoen telekomunikazio-sarea Anardi industrialdetik iristen da eremura, eta barruko urbanizazioan barrena igarotzen da.

Lehendik dagoen sareko gas-hoditeria eremu osoan barrena igarotzen da. “b.10.2” partzela zeharkatzen du eta ibaia inguratzen duen oinezkoentzako eta bizikletentzako bidearen

Honen bidez jakinarazi nahi da dokumentu hau Azpeitiko Hirigintza Antolamenduaren Plangintza Orokorreko TRUKUTXO 31 Hirigintza Eremurako Urbanizazio Proiektuari dagokiola.
Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartu du Alkatetzak 2025/09/02an emandako Ebazpenaren bidez. Idazkaria.
Honako dokumentu hau **Azpeitiko "UE.1/31 Trukutxo" Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektuaren parte dela egiaztatzeko,** proiektu hori **Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko abenduaren 2an egindako bilkuran behin betiko onartu zuen.**

paraleloan igarotzen da HUAra iritsi arte. Goi-tentsioko sarea da (200 mm-ko altzairuzko 16 ATM). Etorkizunean b.10.1 partzelarako hartune bat egitea aurreikusten da. Hartunearen trazadura bi ertzetako plataformak lotzen dituen zubiaren paraleloan joango litzateke. Hierros Servando enpresak, gaur egun, ez du gas-hartune hori behar eta, beraz, ez litzateke egikarituko, etorkizunean egitea posible izango litzatekeen arren.



**7. irudia**: Telekomunikazio-sarea eta gas-sarea.

### Bide Azpiegitura

Komunikazio-sare orokorretatik Trukutxorako sarbideak gauzatuta daude bideragarritasun publikotik (GI-631 errepidea, Urolako bizikleta eta oinezkoen bidea, autobus-geltokia eta Urolako trenbide-sare berri baterako erreserbatutako trazadura).

Honen bidez jakinarazi nahi da dokumentu hau Azpeitiko Hirigintza Antolamenduaren Plangintza Orokorreko TRUKUTXO 31 Hirigintza Eremurako Urbanizazio Proiektuari dagokiola.
Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartu du Alkatetzak 2025/09/02an emandako Ebazpenaren bidez. Idazkaria.
Honako dokumentu hau **Azpeitiko "UE.1/31 Trukutxo" Exekuzio Unitateko Urbanizazio Proiektuaren parte dela egiaztatzeko,** proiektu hori **Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko abenduaren 2an egindako bilkuran behin betiko onartu zuen.**

### 4.2.3 INGURUMEN-ADIERAZPEN BATERATUAREN EBAZPENEAN ESKATUTAKO NEURRI BABESLE, ZUZENTZAILE, KONPENTSATZAILE ETA JARRAIPENEKOAK EZARTZEA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak 2025eko otsailean egindako "Azpeitiko Trukutxo 31. Hirigintza Eremuaren Plan Partzialaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa" dokumentuan eskatutako neurrien erantzun gisa, jarraian azalduko dira neurriok eta horiek betetzeko kontuan hartutako ekintzak.

❖ D.1. Jabari publiko hidraulikoaren babesari buruzko neurriak

D.1 Medidas relativas a la protección del dominio público hidráulico

- El retiro mínimo establecido para la regata Ugalditza será de 5 m para la urbanización.
- Las actuaciones que se realicen en el dominio público hidráulico y sus zonas de protección requerirán de la previa autorización de obras de la Agencia Vasca del Agua.

Ugalditzako errekastoan urbanizatzeko gutxieneko distantzia 12 metrokoa da. Dagokion Urbanizazio Aurreproiektuan ezarrita dago.
Jabari publiko hidraulikoan lanak egikaritu aurretik, baimena eskatuko zaio Uraren Euskal Agentziari.

❖ D.2. Uholde-arriskua murrizteko neurriak

D.2 Medidas destinadas a aminorar el riesgo de inundación

- De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 126 ter del Reglamento de Dominio Público Hidráulico (RDPH) y en el artículo 48 del Plan hidrológico, las nuevas urbanizaciones, polígonos industriales y desarrollos urbanísticos en general, deberán minimizar la cuantía de pavimentación u ocupación impermeable a aquellas superficies en las que sea estrictamente necesario e introducir sistemas de drenaje sostenible, tales como superficies y acabados permeables, de forma que garanticen que el eventual aumento de escorrentía respecto del valor correspondiente a la situación preexistente puede ser compensado o ser irrelevante; así como prever el tratamiento de las aguas de escorrentía generadas. A tal efecto, el expediente del desarrollo urbanístico deberá incluir un estudio hidrológico-hidráulico que lo justifique.
- En el Proyecto de Urbanización del ámbito se deberá asumir lo establecido en el artículo 48 de la normativa del Plan Hidrológico en vigor en relación con la introducción de sistemas urbanos de drenaje sostenible.
- El Proyecto de Urbanización, al estar situado el ámbito en zona de policía de cauces, requerirá de la preceptiva autorización administrativa de la Agencia Vasca de Agua.

Urbanizazio-proiektu honetan zolatu beharreko azalera oso txikia da. Zerrenda txikiak baino ez dira zolatuko b.10.2. partzelako hartuneak egitean kaltetzen diren zoladurak birjartzeko. Urbanizazioa finkatuta dagoenez, ez da planteatzen drainatze iraunkorreko sistemarik sartzea.

## ❖ D.3. Uren kalitatea babesteko neurriak

D.3. Medidas destinadas a la protección de la calidad de las aguas

- El Proyecto de urbanización preverá el establecimiento de medidas para minimizar el arrastre de sólidos a las aguas superficiales durante las obras, tales como barrera longitudinal de sedimentación, decantadores, trampas de sedimentos o filtros. Asimismo, se propondrá un sistema lava-ruedas a la salida de la obra conectado a una balsa de decantación.

